

**ESTRAPERLO BERBEA.**—Ondarrabia'n Bordari'ri omena egin jakonean «estraperloa» izan zan Xanpun bertsolariari ipiñitako gaia. Baiña berak ez ekian berba orren esanaia, ez eban ezaguna berba ori, ta alboko bertsolariari itandu eutsan. Orduantxe jakin eban «estraperlo» berbeak beste laterrietako «merkatu baltza» esan nai ebala.

Berba orren jatorria edo gaztelerango sarrera polita izan zan. Lerroux'tarrak (bera buru zala?) Gobernuan egozala, 1935'garren urtean, ruleta edo olako jokuko tresna bategaz atzerritar bat etorri zan. Orduan eta aspalditik galerazota egoan jokoia España'n.

Tresna a miragarria ei zan, arritzekoa; bere izena «straperlo».

Ta jokoia galerazota egon arren gizon batzuk zuritzea lortu eban atzerritar arek; tartean Gobernuko alderdiko goi mailako jaun batzukaz alkartuta (tartean Uzkudun ukabilkaria be ba-zan) Donostia'n jokatu zan straperlo tresneagaz. Baiña ori eziña zan, legearen aurkako uts andia zan eta egun batekoagaz dana amaitu zan. Ta aldendu zan kontixu gizona bere tresna miraritsuagaz.

Ori danori, ixilleko kontua izan zan, erriak ez eban jakin, izparringi ta abarrek orren barririk ez eben zabaldu.

Baiña denporeagaz Gobernuaren aurkako zan norbaiten belarrietara eldu zan eta jorduan sortu zan zaparradea!

Madrid'ko Lege-batzarrean bat-batean ixilleko kontua zana agertu eban danak arrituta lagauaz. Eta ordutik egun gitxira gauzea egia zala garbi jakin zanean, Gobernu ankaz gora jausi zan.

Orduantxe entzun zan lenengo aldiz «straperlo» berbea.

Gero denporeagaz dana aztu zan, berbea be bai. Ta gudea izan ez balitz betiko aztuko zan ziur. Baiña gudak izan ziran, lenengo emen eta gero mundu guztian; eta ortik sortu zan jaki urritasunean legearen aurkako saldu erosteak egiten ziran. Eta orri deitzeko, lengo ixilleko jokuaz eta tresna aregaz norbait gogoratu zan kontixu. Ta alantxe lengo «straperlo» gero «estraperlo» biurtu zan. Ta kontuak be alantxe ziran eta ¡bai berbeak indarra artu be!

*Kamiñazpi*